

# Sei urteren ostean berpiztea urrun da

*Corralito*ak ekonomia ez ezik argentinarren esperantzak hondoratu zituen. Sei urte pasa berri direnean, Kirchnerren Gobernuak ekonomia suspertu duela eta Cristina Fernández presidente aukeratu berriak bide itxaropentsua zabaldu duela diote. Baina *corralito*aren erruz Euskal Herrira alde egin behar izan zutenek uste dute oraindik asko dagoela hobetzeko.

MIKEL GARCIA

**BUENOS AIRESEN,** Argentinako hiriburuan, bizi ziren Jorge Jimenez eta Elena Muñoz senar-emazteak. Bitxigintza zuten lanbide, historikoki negozio arrakastatsua herrialde hartan, harik eta *corralito*ak –hots, Fernando de la Rúa presidenteak erabakita 2001eko abenduan bankuetatik eskudirua ateratzeko debekuak– eztanda egin zuen arte. Argentinako historiako kolpe ekonomikorik larrienaren ondorioz, pesoaren balioa dolarrarekiko hiru eta erdi devaluatu zen eta urrea dibisa bat denez, hirukoitza kostatzena pasa zen bat-batean. Jendeak jada ez zuen bitxirik erosten.

Hala ere, Jorge Jimenez Iruñeko elkarte argentinarreko kideak dio ekonomia ez zela izan alde egiteko arrazoa: “Lapurtu egin ziguten (han ez dituzte bitxi-dendak aseguratzen) eta segurtasun faltak bultzatu zuen gure erabakia. Negozioa zapuztua baldin bazegoen ere, inoiz ez nintzateke nire herritik joango ekonomiak eraginda; auzo txiro batean hazi nintzen, familia umil baten altzoan, eta ez diot beldurrik Argentinako egoera ekonomiko txarrari. Baina segurtasun faltaren gorakadarekin ezin genuen kalera lasai atera, seme-alabak ditugu eta lorik ere ezin egin”. 2002an, lur hartu zuten Iruñean.

Elena Muñozen amak Nafarroa du jaioterri eta horregatik aukeratu zuten Iruñea, horregatik eta kalitate oneko bizimodua topatzeko itxaropenagatik. Zerotik hasi ziren, “argentinarrak ohituta gaudelako zerotik hastera”, eta bitxigintza negozioa ireki zuten Carlos III.a eta Gorriti kaleen artean. Santu guztiak aldatu dizkietela diote barre artean, kateak eta bitxiak egiteko Xabierko Frantzisko, San Fermin edota Aralarko San Migel ezagutu behar izan baitituzte, edo lauburuarekin eta eguzki-lorearekin belarritakoak egiten ikasi. Erroak mantendu asmoz, argentinarrak elkartean aukera dute tangoa dantzatzeko, haragi erreka jateko eta gainontzeko argentinarrak etorkinekin biltzeko.

## Argentinarekin ezkor

Ibilbide gorabeheratsua izan da Jimenez eta Muñozena, baina pozik daude duela sei urte hartutako erabakiarekin, oso eszeptikoak baitira Argentinako egoerarekin. Han hamar urtero dirua bukatzen dela diote, lur-jotzea ziklikoa dela. Jimenezen hitzetan, “gaur egun oraindik lur-azpitik ateratzen ari da Argentina. Hobeto omen gaude, baina zerekin konparatuta? Izan ere *corralito*a ez zen zerotik abiatu, -10. solairutik baizik eta oraindik ez gara aurreko mailara heldu”. Bankuek bahitutako dirua bera, esaterako, pesotan itzultzen joan da gobernua, ez dolarretan, eta beraz hasieran zuen balioarekiko hiru bider devaluatuta. Oraindik diru guztia jaso ez duenik bada, gainera.

Iruñeko bikotea hirutan bueltatu da sorterrira, azkenekoz joan den irailean, eta asko falta omen da normaltasunera iristeko: bahiketak, kaleen egoera txarra, ustelkeri poliziala... aipatu dituzte. “Gainera, hain daude zentratuta ekonomian, arlo soziala guztiz ahaztua dutela: osasuna, ezinduak, zahartzarua, haurren hezkuntza...”. Turismoa edo esportaziorako nekazaritza bezalako sektore zehatz batzuk hobeto daudela onartu du Jimenezek, “baina zorigaitzari esker, hau da, monetaren devaluazioari esker. Noski, gobernua egokien datorkion irakurketa egiten du”.

Laura Panetti eta Greta Frankenfild, *corralito* garaian emigratu zuten beste bi argentinarrak, Bilbon bizi dira egun, eta euren herrialdeko egoera ere ez dute baikor ikusten. Frankenfildek *corralito*a gertatu eta bi urte eta erdira bisitatu zuen bere jaioterria, eta ikaratuta geratu zen: “Rivadavian, Buenos Aireseko kale nagusian, lokal guztiak puskatuta eta hutsik zeuden, bankuak hesituta, argirik gabe, ateatako helduleku guztiak ostuta... Itota sentitu nintzen, eta oso baliagarria izan zitzaidan, handik joatea ideia ona izan zela ikusi nuelako”. Bizpahiru alditan itzuli dela eta egoera hobetu egin dela dio, baina hala ere beheko eta

Argentinarekin beti ikusten  
dituzte konspirazioak euren  
ezbeharren atzean, arazoa beti  
exogenoa balitz bezala,  
“munduak hala nahi duelako”

Elena Muñoz eta  
Jorge Jimenez

"Oraindik lur-azpitik ateratzen ari da Argentina. Hobeto omen gaude, baina zerekin konparatuta? Izan ere *corralitoa* ez zen zerotik abiatu, -10. solairutik baizik".

• ASTERO GAIA •

# Argentina







DANI BLANCO

goiko mailen artean desberdintasun handiagoa ikusi du, eta erdiko maila geroz eta okerrago.

### Esku beltzak irudimenean

Herritarren jarrerak ere zerikusi handia izan du eta du Argentinako egoeran, gure solaskideen esanetan. Gehienen arabera, argentinarrek beti ikusten dituzte esku beltzak eta konspirazioak euren ezbeharren atzean, arazoa beti exogenoa izango balitz bezala, etxean bertan dutenean; Argentinari gaizki doakionean “munduak hala nahi duelako eta ez gauzak gaizki egin dituelako” izango balitz bezala. Azkenean, utzikeria nagusitzen dela uste du Jimenezek, eta herriarentzat zerbait positiboa lortzeko gogoia eta borondatea jarriko balitz, gauzak asko aldatuko lirakekeela. Kontua da, Laura Panettiren hitzetan, bertako jendeak ez duela gauza kanpotik bezain argi ikusten.

*Corralito* aurreko urteetan, Rosario bizi zen Panetti, senarra eta bi alabarekin. Ingeles irakasle ibili zen hainbat etxetan, senarra berriz elektrikaria zen, baina ekonomikoki ez ziren iristen. Frankenfeldek ere, ezkontuta eta alaba bakarrekin, gero eta lan gehiago egin eta gero eta bizi-modu okerragoa zeramatela dio. Kazetari moduan lan finkoa zuen aldizkari batean, baina beste mila kontutan egiten zuen behar eta senarrak ere lan bat baino gehiago zuen. 1983an dik-

## Greta Frankenfild (eskuinean)

“Emigratzea triste da, baina ahal nuen guztia egin nuela sentitzen nuen, herriarekin konprometitu nintzela... eta ordainetan ez nuela ezer jaso; ez nuen biderik aurkitu han jarraitzeko”.

## Laura Panetti (ezkerrean)

“Ahalegin handiak eginez atera gara aurrera Euskal Herrian. Ez dut lortu ingeles irakasle moduan aritzea, baina egonkortu egin gara: ez hainbeste ekonomikoki, espiritualki baizik”.

*Corralito* garaiko %50eko  
pobrezia egun %25era igaro  
den arren, txiroen adina da  
larriena: %40ak hamabost  
urtetik behera dauzka

taduratik demokraziara igarotzeak onura nabaria ekarri bazuen ere, ekonomikoki ez zen hala izan. Raúl Alfonsín presidente berriarekin hiperinflazioa jasan zuen Argentinak eta 1989tik aurrera, Carlos Ménemen hamarkada neoliberalak langabezia, enplegu prekarietatea eta pobrezia areagotu zituen. “Baldintza txarrak izan arren, lan bati ezetz esanez gero erotzat hartzen zintuzten –dio Frankenfeldek–, beti kolokan eta ziurgabetasunarekin, ezin aurrera begiratu, ezin planik egin”.

*Corralitoa*, beraz, hartatik guztitik aldentzeko behar zuten aitzakia izan zen. Ustelkeria, haurren bahiketak, beldurra, lapurretak... ohiko bihurtu ziren, eta gai bakarra entzun zitekeen berriketa guztietan: dirua (edo diru eza). Bankuan zutenek dena galdu zuten gautetik goizera eta etxean gordeta zuten askok familiarren baten bahiketa sufritu zuten, ondoren askatzeko dirua eskatzen baitzieten. 36 milioi biztanletik gora zituen herrialdean, 20 milioi lagun pobrezian hondoratu ziren; batek baino gehiagok bere buruaz beste egin zuen.

2001eko abenduan, Frankenfelden senarrak emigratu egin zuen, eta bankutik astero 200 dolar ateraz diru pixka bat bildu ahal izan zuten, bi hilabetera berak ere Buenos Aires utzi zuen: “Min ematen du, triste da, baina ahal nuen guztia egin nuela sentitzen nuen, herriarekin konprometitu nintzela... eta ordainetan ez

## Paradigma ekonomikoa, aurrekariak eta ondorengoak

Ménemen Gobernuak utzitako defizit fiskal handiari aurre egiteko, 1999an Bihurgarritasuna –pesoa dolarrarekin parekatzea– izeneko plan ekonomikoa jarri zuen martxan De la Rúaren Gobernuak, eta pesoa dolarrari guztiz lotua geratu zen. Baina nazioarteko testuingurua ez zen ona eta enpresa pribatuei eta Nazioarteko Moneta Funtsari dirua eskatu arren, kapital-ihesen gorakadak kalte izugarria egin zion Argentinari.

Dolarraren menpe, ez zuen moneta independenterik ateratzeko gaitasunik, sektore guztiak behea jo zuten, langabeziak goia eta zor publikoa 132.000 milioi dolarretaraino igo zen. Kapital-ihesek eraginda bankuak diru likido gabe gera ez zitezen, 2001eko abenduaren 3an deposituen, transakzioen eta bankuetatik atera zitekeen eskudirua erretentzioa inposatu zen, eguneroko mugimendu ekonomikoa itoaz. Herriaren haserreak kaleak bete zituen eta abenduaren 20 eta 21eko protestek De la Rúaren dimisioa bultzatu zuten.

Eduardo Duhalderen presidentetzapean, kanpo zorra ez ordaintzea erabaki zuen kongresuak. Nazioarteko Moneta Funtsari eta Munduko Bankuari egozten zion errua Argentinak eta ekonomikoki mundutik at geratu zen. Herrialde hegoamerikarrean inork ez zuela inbertitu nahi ikusirik, barne lana funtsezkoa izan zen. Bihurgarritasun ereduak kendu eta pesoa devaluatu egin zen dolarrarekiko. Nazioarteko testuingurua oso aldeko zuela, pixkanaka burua altxatzen hasi zen lurraldea. 2002ko abenduaren 2an *corralón* deiturikoak



Casa Rosada, Argentinako gobernu eraikina.

eman zion amaiera ofiziala *corralito*ari, bahituta zegoen 21.000 milioi pesoko depositua liberatuz.

Azken bost urteetan, Néstor Kirchnerrekin ia %45eko hazkunde ekonomikoa lortu du Argentinak; nekazaritza, industria, turismoa eta merkataritza suspertu egin dira; langabezi eta pobrezia tasek behera egin dute; eta zorrak ordaindu ditu Gobernuak, bai 152 bonodun garrantzitsuekin zituenak –hori bai, pesoaren balioarekin eta ez dolarrarekin– eta baita Nazioarteko Moneta Funtsarekin zituenak ere. Egun, Latinoamerikako hirugarren potentzia da Argentina, Brasil eta Mexikoren atzetik. Nazioarteko testuinguru aldeko du (dolarraren devaluazioa, Txina eta Indiaren eskara...) eta nekazaritza eta abeltzaintza indartsu dabilta. Inflazioak, ordea, arazo larriak ekar liezazkioke.

Adituen arabera, nazioarteko testuinguruaren menpe egongo ez den garapena lortzea du erronka nagusia; globalizazioaren inpaktuak ahalik eta gutxien eragiteko mekanismoak jartzen ikasi behar du, beti etxeko arazoan errua kanpokoari bota ordez. Eta lortu beharreko bigarren erronka: Latinoamerika elkartzea. Duela 15 urte jaio zen Mercosur, merkataritza latinoamerikarra bateratzeko helburuarekin, baina ez dago batere egonkortua eta etorkizun hurbilean behintzat elkartasunak zaila dirudi, interes asko dagoelako jokoan eta oraingoz herrialde bakoitzak nahiago duelako bereari heldu.

ziren, anai-arrebek bertara emigratu zutelako. Familia eta lan kontaktuarekin, ate gehiago ireki zitzaizkien eta denetik egin badu ere (inkestaztzaile, dendari, administratibo, teleoperadore...), hemen egonkorrago sentitzen du bere burua.

2004 inguruan, Argentinatik zetozen etorkinei behar duten harrera eman nahian elkarteak sortu zuen beste hainbat herritarrekin, tartean

nuela ezer jaso; ez nuen biderik aurkitu han jarraitzeko”. Madrilén hasi zuten ibilbide berria, eta hastapenak oso gogorrak izan ziren: guztiz galduta sentitu zen Frankentfeld, beste mundu batean, eta hiru hilabete eman zituzten ostatuan, inork ez zuelako logelarik alokatu nahi. Mallorcara bidaiatu zuten ondoren, baina hura ere ez zuten gustuko izan, eta azkenean Bilbora etorri

Ezker-eskuin: Buenos Aireseko gunerik komertzialenetakoa (Florida hiribidea) eta txiroenetakoa: La Boca auzoa.





## Argentina

Laura Panetti. Panetik zuzenean bidaiatu zuen Rosariotik Bilbora, 2002 hasieran –2001 bukacratik senarra Bartzelonan eta Bilbon egona zen–. Ahalegin handiak eginez atera dira aurrera; egun Munduko Emakumeak elkartearen izenean hitzaldiak ematen eta inkestak egiten dihar-du, baina ez du lortu ingeles irakasle moduan aritzea. Dena den, egonkortu egin direla dio, “ez hainbeste ekonomikoki, espirituali baizik”.

### Politikarien utzikeria

Zailtasunak zailtasun, Bilboko bi emakume hauek ez dute jaioterrira itzultzeko asmorik eta “erreta” eta “desengainatuta” bezalako sentimenduak erabiltzen dituzte Argentinaz mintzo direnean. Herrialde hegoamerikararren historiak eman dituen politikariek ez dute gehiegi lagundu. Juan Domingo Perón presidentearen –eta famatu egin zen bere emazte Eva Perónen– garaitik makina bat kolpe militar jasan ditu Argentinak. Azkenekoa, 1976koa, oraindik oso gogoan dute herritarrek –tortura ohiko zen gerra zikinean 30.000 lagun ‘desagertu’ ziren–, baina ondorengo demokraziarekin ere, arestian aipaturiko Alfonsín eta Ménemen gidaritzapean, garai gogorrak bizi behar izan zituzten. Ménemek herrialdea saldu zuela dio hainbatek, enpresa guztiak pribatizatu, kultura pikutara bidali eta nazioartean zituen zorrak biderkatu egin zituela. Eta *corralito*arekin dena hankaz gora geratu zen: orduan ere, herriki-deak kontuan hartu gabe eta karguak iraun bitartean ahalik eta diru gehien egiten gogoratzen ditu politikariak Frankenfeldek.

**Cristina Fernández de Kirchnerren politika soziala itxurakerian geratuko dela diote solaskideek. Ekonomian, inflazioa da arazo nagusia**

Argentinako politika konplexua da, XX. mendearen bigarren zatitik aurrera askotan peronismoari lotuta. Agustín Jaureguiberry aditu argentinarraren esanetan, peronista bat boterera iristen denean, oso leku gutxi uzten dio oposizioari, eta oposizioak ere oso politika traketsa du, inoiz ez baita batzeko gai –egun, oposizioko kideak gobernukoak baino ugariagoak dira parlamentuan, baina ez dute inoiz bat egiten–. Néstor

Kirchner izan da 2003tik 2007ra bitartean Argentina urpetik ateratzen saiatu den presidentea eta oso modu despotikoan aritu dela uste du Jaureguiberryk, erakundeak kaltetuta atera direla dio, baina jendeak oro har ez dio garrantzirik eman, lehentasuna arlo ekonomikoak izan duelako. Greta Frankenfeldek berriz, beharrezkoa ikusi du Kirchnerren Gobernu, eta “aurreko hondamendiekin konparatuta” gizarte gaiak eta asoziazionismoa bultzatu dituela nabarmendu du.

### Cristina, norabide berria?

Datorren martxotik aurrera, hego hemisferioan uda bukatzen denean, ikasturte politiko berriari ekin beharko dio Cristina Fernández de Kirchner aurreko presidentearen emazte eta gobernuburu hautatu berriak. Kanpaina politikoan pobrezia, langabezia eta hezkuntza lehen tokian jarri zituen emakumeak –komunikabideek “Evita berria” izendatu zutenak– aldaketa gutxi ekarriko dituela uste dute solaskideek. Gai sozialen inguruko politika itxurakerian geratuko dela eta senarraren arrastoa jarraituko duela diote denek aho batez, itxaropen handiegirik gabe.

DANI BLANCO



## Eduardo Sluger

“Latinoamerikako ustelkeria handienetakoa daukagu, erakunde eta eskala guztietan, lehenetik azkeneraino; lapurtzeari utziko baliote, Argentina hiruzpalau urtetan krisitik aterako litzateke”.

Obeliskoa, Buenos Aireseko ikonoa.



## Ia 4.000 Hego Euskal Herrian

Egun 39.350.000 biztanletik gora ditu Argentinak. *Corralito*ak migrazio handia eragin zuen –krisi ekonomikoek eta diktadura militarrek 1976-1983 urteen artean eragindakoaren antzera–, batez ere Espainia, Italia eta AEBetara. Estatistika datuen arabera, 2007an EAEn 98.108 etorkin eta horietatik 2.903 argentinarrak zeuden bizitzen. Errolda datuen arabera, 2006an Nafarroan 55.444 etorkin eta horietatik 1.084 argentinarrak bizitzen ziren.

Hain justu, Fernández de Kirchnerrek ez zuen inongo hiri-gunetan irabazi, herrietako probintzietan baizik, eta horrek erdiko klasearen babesik ez duela adierazi dezake, adituen esanetan. “Prezioek gora egiten dute, gobernuak gezurtatu nahi duen arren inflazio handia dago, garraio bideek ez dute funtzionatzen, gabezi soziala izugarria da... eta esperientzia politiko handiagoa duen jendeak ikusten du hori dena”, dio Jaureguiberryk.

Eduardo Sluger Donostian bizi den buenosaiestarrak ere ez du begi onez ikusten presidente berria: “Botere anbizio handia dauka eta mitoa izan nahi du, Evitaren antzera, baina ez da ahaztu behar Kirchner bikoteak Santa Cruz probintzia porrot eginda utzi zuela bertako gobernatzaile zirenean. Kontua da presidentetzarako ez zegoela askoz aukera hobirik, ez baitago oposizioirik Argentinan, eta jendeak jarraikortasuna bozkatu du, okerrera ez egitea...”.

1991n sorturiko Gipuzkoako argentinarren elkarteko buru da Eduardo Sluger, egun elkarte nahiko geldirik baldin badago ere. Arrazoi politikoengatik emigratu zuen, 1980an, agintean militarrek zeuden garaian, baina *corralito*agatik Euskal Herrira etorritako argentinarrak ugariri egin die harrera. “Jende askori iruditzen zaio Latinoamerikatik etorri eta segituan dirua eta lana lortuko duela, baina ez da hala. Sarritan familia guztia batera etorri da, kolpean, lanik eta paperik gabe eta 1.000 euroekin, eta azkenean dirua eskatu behar izan dute ezer lortu gabe berriz Argentinara itzultzeko”. Dena den, bera etorri zen garaian errazagoa egin zitzaion bidea irekitzea: Donostia-ra iritsi aurretik Europan zehar ibili zen eta irrati esatari, auto saltzaile, dendari eta tabernari aritu da. Egun, gizon ekintzaile honek Costa Vasca hoteleko diskoteka kudeatzen du astebururo.

### Zulo nagusiak

Bere jaioterrian izan berri da Sluger eta gobernu berriak egiteko asko duela iruditu zaio. Bere esanetan, ustelkeria da arazo handiena: “Argentina oso lurralde aberatsa da, baliabidez betea, eta horregatik ez da inoiz guztiz hondoratzen, baina



hain da handia dagoen dirutza, lapurtzeko joera dagoela. Latinoamerikako ustelkeria handienetakoa daukagu, erakunde eta eskala guztietan, lehenetik azkeneraino; lapurtzeari utziko baliote, Argentina hiruzpalau urtetan krisitik aterako litzateke”. Hain justu, azken urteetan hobetu beharrean okerrera egin du ustelkeriak, nazioarteko estandarren arabera, eta herritarrak nekatuta daude.

Segurtasun faltari eta estatu politikei (hezkuntza, osasungintza, justizia...) heltzea falta zaio gobernuari, eta pobrezia aurre egitea. *Villas miseria* deituriko txabolez beteta auzo osoak ikus daitezke, eta *corralito* garaiko %50eko pobrezia egun %25era igaro den arren, txiroen adina da larriena: behartsuen %40ak hamabost urtetik behera dauzka; belaunaldi berriek ez dute ez hezkuntzarik, ez jatekorik ere.

Hemen ere kontuz ibiltzeko ohartarazi digu Slugerrek: Europar Batasuna indartsua dela eta bere babesa dugula dio, baina *corralito*ak eztanda egin aurretik Argentinan gertatzen zena ikusten du gure inguruan: jendeak mantendu ezin duen bizi-maila darama, ezeri uko egin gabe eta krisi posible bati erreparatu gabe.

### Etokizuneko tsunamia

Hala ere, erreportajeko lau hizlariak garbi daukate ez direla euren jaioterriara itzuliko, edo etorkizunean denboraldi bat han eta beste bat hemen eman nahiko luketela. Gogorra da emigratzea, hemen dirua irabazi arren deserrotzea jasan ezin izan duen askok bueltako bidaia egin du urte hauetan, baina gure solaskideek Euskal Herrian dituzte euren buruhauste eta esperantzak: lan egokia topatzea, egonkortzea, bizi-mailan hobera egitea...

Eta Argentinaren etorkizuna? Jorge Jimenezek tsunamia datorrela jakinda eguzkia hartzen duen turista moduan ikusten du argentinarra: “Jendea konbentziturik dago beste zartako ekonomiko bat egongo dela, eta eguzkia hartzen jarraitzen du...”. Slugerrek, aldiz, gazteengan du itxaropena eta gurasoei gertatu zaiena saihesteko gai izango direla uste du: “Bere akatsak ahazten dituen herrialdea, akats horiek errepikatuzko prest dagoela dio esarak; espero dezagun ez dadila gertatu...”.

<http://www.argia.com/argia-astekaria/1841>

helbidean, *Desilusioak jotako euskaldunak*: duela sei urte *corralito*ari buruz idatzitako erreportajea.